

Xaretak eskaini guzien artean ederrena Sarako idazleen biltzarrarena. Zinez hunkitu naiz eta Sarako arduradunak eskertzen ditut.

Lehenik eskertzen dut ene familia osoa, ene anderea ene alabak, gero ene adiskide guziak : Lauburuko kideak, SAMB eta Etnikerrekoak, ahanzi gabe Eugène Goyheneche, Barandiaran eta beste maisuetaz oroit naiz ere. Hala nola Haritschelhar Jauna.

Enetzat sari hunek badu kolore berezi bat. Aitortu behar dut, ene gazte denboran ekitaldi hunek (Sarako biltzarra) bazuela halako bitxi aire bat. Garai hartan lur idor batean erne egoiten enseatzen zen eskual kultura eta iker lanak edo idazki erreposki garatzen ziren ...bakar bakartasun osoan ! Xantza ! Jean Michel Garati esker gure mendietan iguzkia atera zaiku. Milesker hiri !!!!

Azkenian aitortzen dut ohore handi bat egiten dautazuela. Webgunean ikusi ditut saristatuak izan ziren izenak, denak ohoratuak izan ziren gure herri ttipiari egin zutenagatik. Zer ohore handia heien artean ene burua gertatzea !!!

Erdi Baionesa erdi Saratar baten partez, bihotzez milesker.

Bizi luze bat Sarako biltzarrari eta haren lehendakariari !

Mikel Duvert, 2022ko Apirilaren 10n.

+